



INTERES KULTURALEKO ELEMENTUAK

ELEMENTOS DE INTERES CULTURAL

O N D A R E
K U L T U R A L A R E N
K A T A L O G O A
-
C A T A L O G O
D E
P A T R I M O N I O
C U L T U R A L



AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
1.- Eibarko Hiri Historikoko Zona Arkeologikoa.	4
1.1.- Deskripzioa	4
2.- Eibarko Balizko Arkeologia Guneak	8
2.1.- Balizko Arkeologia Guneen mugapena.....	8
3.- Hainbat ezaugarriengatik nolabaiteko babes-erregimena behar dutela pentsatzen den ondasun higiezinak.	12
KATALOGO HAU EGITEKO KONTUAN IZAN DIREN IRIZPIDEAK	14
BABES-ERREGIMENAK.....	16
KATALOGOAREN LABURPENA	18
ARKITEKTURA ERLIJIOSOA	18
1865 AURREKO HIRI-ARKITEKTURA	20
LANDA-ARKITEKTURA	20
1865 ONDOKO HIRI-ARKITEKTURA	22
ARKITEKTURA INDUSTRIALA.....	24
BABES BEREZIKO ERREGIMENA: A MAILA	27
BABES BEREZIKO ERREGIMENA: B MAILA	28
OINARRIZKO BABES ERREGIMENA: C MAILA	29
BABES LOKALEKO ERREGIMENA: D MAILA	33
ELEMENTUEN (EZ ERAIKINEN) BABES ERREGIMENA: E MAILA	35
BABES ARKEOLOGIKOKO EREMUEEN BABES ERREGIMENA: F MAILA	37



INDICE

INTRODUCCIÓN.....	5
1.- Zona Arqueológica del Casco Histórico de Eibar.....	5
1.1.- Descripción	5
2.- Zonas de Presunción Arqueológica de Eibar	9
2.1.- Delimitación de las Zonas de Presunción Arqueológica.....	9
3.- Bienes Inmuebles que por diversas características se entiende que deben estar sometidos a algún régimen de protección	13
CRITERIOS PARA LA ELABORACIÓN DEL PRESENTE CATALOGO	15
REGÍMENES DE PROTECCIÓN	17
RESUMEN DEL CATÁLOGO	19
ARQUITECTURA RELIGIOSA.....	19
ARQUITECTURA URBANA ANTERIOR A 1865	21
ARQUITECTURA RURAL.....	21
ARQUITECTURA URBANA POSTERIOR A 1865.....	23
ARQUITECTURA INDUSTRIAL	25
REGIMEN DE PROTECCION ESPECIAL: NIVEL A	27
REGIMEN DE PROTECCION ESPECIAL: NIVEL B	28
REGIMEN DE PROTECCION BÁSICO: NIVEL C	29
REGIMEN DE PROTECCION LOCAL: NIVEL D	33
REGIMEN DE PROTECCION LOS ELEMENTOS (NO EDIFICACIONES): NIVEL E.....	35
REGIMEN DE PROTECCION DE ZONAS DE PROTECCIÓN ARQUEOLÓGICA: NIVEL F	37



SARRERA

Dokumentu honetan uztailaren 3ko 7/1990 Legean, Euskal Kultur Ondareari buruzkoan, eta indarrean dagoen Lurzoruari buruzko legerian, Interes Kulturalako Ondasunen Babesari buruzko gaietan ezartzen diren xedapenak garatzen dira.

"Katalogoa" epigrafe generikoaren barruan honako elementu hauek sartu dira:

1. Eibarko hiri historikoko Zona Arkeologikoa; Ondasun Kultural bezala inskribatzen da, Multzo Monumentalaren kategoriarekin, Euskal Kultur Ondarearen Inbentario Orokorrean, Kultura Sailburuaren 1998ko otsailaren 12ko aginduz.
2. Eibarko Balizko Arkeologia Guneak; Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kiroletako Sailburuordearen 1997ko urriaren 14ko ebazpenean sartzen dira.
3. Hainbat ezaugarriengatik nolabaiteko babes-erregimena behar dutela pentsatzen den ondasun higiezinak.

1.- Eibarko Hiri Historikoko Zona Arkeologikoa.

Eibarko Hiri Historikoko Zona Arkeologikoaren mugapena Kultura Sailburuaren 1998ko otsailaren 12ko Aginduaren I. eranskinean finkatu zen, eta bere deskripzioa Agindu beraren II. eranskinean azaltzen zen.

Uztailaren 3ko 7/90 Legearen, Euskal Kultur ondareari buruzkoaren, 44.2 artikuluan ezarritakoa betez, Plan Orokorrean sartzen dira bai deskripzioaren testua eta bai mugapena.

Plano hauetan irudikatzen da mugapena: E.I.C.- 1 (Eskala 1:10.000) planoan, eta E.I.C.- 2 (Eskala 1:2.000), eta E.I.C.- 3 (Eskala 1:2.000) planoetan.

1.1.- Deskripzioa

Eibarko hiria Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mendebaldeko muga kokatzen da. Ermutik oso hurbil, beraz, Eibarren erreplika bizkaitarra den horretatik. Ego ibaiak Deba ibaira atera aurretik eratzen duen haran estuan kokatzen da. Ibai horren erdialdeko haranaren testuinguruan ulertu behar da, beraz, Eibarko hiria.



INTRODUCCIÓN

En el presente documento se desarrollan las determinaciones establecidas en la Ley 7/1990 de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, y la vigente Legislación del Suelo, en materia de Protección de los Bienes de Interés Cultural.

Bajo el epígrafe genérico de “Catálogo”, se incluyen los siguientes elementos:

1. Zona Arqueológica del Casco Histórico de Eibar, inscrita como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, por Orden de 12 de febrero de 1998, de la Consejera de Cultura.
2. Zonas de Presunción Arqueológica de Eibar, incluidas en la Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes del Gobierno Vasco de 14 de octubre de 1997.
3. Bienes Inmuebles que por diversas características se entiende que deben estar sometidos a algún régimen de protección.

1.- Zona Arqueológica del Casco Histórico de Eibar.

La delimitación de la Zona Arqueológica del Casco Histórico de Eibar, venía fijada en el anexo I de la Orden de 12 de febrero de 1998, y de la Consejera de Cultura, y la descripción figuraba en el anexo II de la misma Orden.

En cumplimiento de lo establecido en el artículo 44.2, de la Ley 7/90, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, se incorpora al Plan General tanto el texto descriptivo como la delimitación.

La delimitación se representa en los planos E.I.C.- 1 (Escala 1:10.000), y en los planos E.I.C.- 2 (Escala 1:2.000), y E.I.C.- 3 (Escala 1:2.000).

1.1.- Descripción

La villa de Eibar se emplaza en el límite Oeste del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Muy cercana a Ermua, su réplica vizcaína. Se sitúa en un estrechísimo valle formado por el río Ego, antes de su desembocadura en el Deba. En cuyo valle medio debe contextualizarse la villa eibarresa.



Mugan egote hori, bizkaitarren erasoengatik izaten ziren kexen ondorioz datorkio, eraso horiek zirela-eta mugaren bi aldeetara sortu baitziren hainbat fundazio, kexak ere, noski, bi aldekoen aldetik izaten zirenez. Bestalde, Deba ibaiaren haranean egoteak gunen interesgarri bihurtzen du kostatik mesetara zihoazen iparretik hegoalderako bide komertzialen sarean.

Gorabehera historikoen, batez ere mende honetakoen, ondorioz, Eibarko planoak aldaketa handiak eta drastikoak izan ditu. Gerra Zibila eta ondoren egin zen berreraikuntza izan ziren handienak. Horren guztiaren ondorioz, gaur egungo Eibar honetan nekez ikusiko da Erdi Arotik jasotako hiri-egituraren aztarnarik.

Toribio Etxeberria kaleko zenbaki bikoitien lerroak markatzen du area horren muga. Kale horretako 16. zk.tik hasiz, bideak egiten duen kurba jarraitu eta galtzadaren atzeko alde hartuko luke eta, etxe-koadro hori ebakiz, Bidebarria kaleko 6. zk.ra iritsiko litzateke. Hemendik lerro bat markatuko luke Ipar-kale eta Bista Eder kaleen arteko izkinaraino, ondoren bigarren kale horretako zenbaki bikoitietatik jarraituz Txirio-kaleko etxeen atzeko aldetik pasatzeraino. Ondoren berriro abiapuntuarekin elkartuko litzateke lerroa, Toribio Etxeberria kaleko 16. arekin.

Hiriaren barruan, lehen esan bezala, aldaketak erabatekoak izan dira. Hemendik aurrera, beraz, gaur egungo espazioaren mugapena deskribatzen saiatuko gara, kontuan izanik, beti ere, ez dagoela inolako erlaziorik Eibarko hiri historikoarekin.

Puntu nagusi bezala San Andres eliza hartuko da. Hortik hainbat kale ateratzen dira: Fermin Calbeton (hasierako zenbakietan bakarrik), Txirio-kale, Ipar-kale (ia bukaera arte), eta Bidebarrieta kalea, hau ere hasierako zenbakietan bakarrik. Esparru horri Zuloagatarren kalea eta Plaza Barria gehitu beharko litzaizkioke, parrokiaren inguruan daudenak.

Kale horiek guztiek hainbat etxe-koadro eratzen dituzte; horien artetik aipagarriak dira: Ipar-kaleak eta Txirio-kaleak eratzen dutena, bigarren kale horretako zenbaki bikoitien tartea; etxe horietan bakarrik aurkituko dira fatxada estu eta partzela luzangatuko hiri-orube hain bereziaren aztarnak. Gainerako orube guztiak eraikuntza berrikoak dira eta, batzuetan, altuera handikoak, herriaren berreraikuntza eta azpitik doan Ego ibaiaren itxidura egin zenean sortutakoak.

Urbanizatu berria izan denez, barnean ez da espazio hutsik geratzen, San Andres elizaren inguruan zabaltzen den plaza hori salbu; eta plaza bera ere oso urbanizatu aurkitzen da.



Su posición de frontera se debe a las quejas por las agresiones de vizcaínos, lo que dará lugar a numerosas fundaciones tanto a un lado como a otro de la frontera al ser mutuas las continuas quejas. Por otro lado, su posición en el valle del Deba le hace un lugar de interés en las rutas comerciales que N-S iban de la costa a la meseta.

Las vicisitudes históricas, principalmente de este siglo, han hecho que el plano de Eibar haya sufrido fuertes y drásticos cambios. La Guerra Civil y su reconstrucción posterior supuso el mayor de ellos. Tal es el caso que resulta imposible reconocer en el Eibar actual la estructura urbana legada de la Edad Media.

La delimitación del área viene dada por la línea de números pares de la c/ Toribio Etxeberria. Desde el nº 16 de esa calle daría la curva que hace este vial, ocupando parte de la calzada para, cortando esta manzana, llegar al nº 6 de la c/ Bidebarrieta. Desde aquí trazaría una línea hasta la esquina de Iparkale con Bista Eder kalea, para seguir por los números pares de esta calle hasta pasar por las traseras de Txiriokale. Uniría después con el punto de inicio en el nº 16 de la calle Toribio Etxeberria.

Al interior de la villa, como se ha señalado, los cambios han sido radicales. Se pasa por tanto a describir la delimitación del espacio actual teniendo siempre en cuenta la escasa relación con la villa histórica de Eibar.

Tomando como punto central la iglesia de San Andrés. De ella parten varias calles como son Fermín Calbetón, solo en sus primeros números, Txiriokale; Iparkale, casi hasta el final, y Bidebarrieta kalea, también en sus primeros números. A este recinto habría que añadir las calles Zuloagastarren y la plaza Barria que rodean a la parroquial.

Todas estas calles forman varias manzanas de las que destaca la formada por las calles Iparkale y Txiriokale, así como el tramo de números pares de esta última calle, así como el tramo de números pares de esta última calle, solo en ellas se puede rastrear el característico solar villano de estrecha fachada y solar alargado. El resto de los solares son de nueva construcción y en ocasiones de considerable altura, siendo fruto de la reconstrucción del pueblo y del embocinamiento del río Ego que discurre por su subsuelo.

Al ser objeto de reciente urbanización carece de espacios vacíos en su interior, excepción hecha de la plaza que rodea a la iglesia de San Andrés, pese a que también se encuentra muy urbanizada.



Eliza hau izango da seinalatutako area horren barruan nabarmentzeko moduko eraikin historiko bakarra. San Andres eliza, berez Erdi Arokoa den arren (Eibar fundatu aurrekoa), gaur egun ikusten zaion irudia XVI. mendean berreraikitako eta, batez ere, XVII. mendean erreforma handiak izandako tenplu batena da, era honetako tenplu guztietan ohizkoa den bezala.

2.- Eibarko Balizko Arkeologia Guneak

Eibarko Balizko Arkeologia Guneak Kultura, Gazteria eta Kiroletako Sailburuordearen urriaren 14ko Ebazpenaren I. eranskinean zeuden zenbakituta eta mugatuta.

Uztailaren 3ko 7/90 Legearen, Euskal Kultur Ondareari buruzkoaren, 44.2 artikuluan ezarritakoa betez, Plan Orokorrean sartu dira Babestu beharreko areen mugapena eta tipologia, aipatutako Ebazpen horretan sartzen ziren elementu guztiak hartuz barnean.

Ez da sartu "12. Orbe baserria (A)" elementua, lurrera bota baita, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskarako sailak egindako txostena kontuan hartu ondoren (15/97 espedientea).

Plano hauetan irudikatzen da mugapena: E.I.C.- 1 (Eskala 1:10.000) planoan, eta E.I.C.- 2 (Eskala 1:2.000), eta E.I.C.- 3 (Eskala 1:2.000) planoetan.

2.1.- Balizko Arkeologia Guneen mugapena.

Irizpide hauen arabera justifikatzen dira Balizko Arkeologia Guneen mugak:

- Gaur egun arte ezagutzen diren material arkeologikoen banaketa.
- Zero kotaren gainetik kokatzen diren egituren egoera.
- Egiturek azaltzen duten kokaera topografikoa.
- Elementuaren ezaugarri tipologikoak eta garrantzi historikoa.

Eibarko Balizko Arkeologia Guneen Mugapena sistematizatzen saiatuz, aipatutako irizpide horien eta irispide horien konjuntzioaren arabera, babestu beharreko areen ondorengo tipologia hauek definitu dira

- A Eraikinaren horma-barruko area
B Eraikinaren horma-barruko area + 15 metro inguruan, kanpoko ertzetik kontaktzen hasita.



Esta iglesia será el único edificio histórico destacable dentro del área señalada. La iglesia de San Andrés, aunque de origen medieval (anterior a la fundación de Eibar) presenta hoy la visión de un templo reconstruido en el s. XVI y con fuertes reformas a lo largo del s. XVII principalmente, como suele ser habitual en este tipo de templos.

2.- Zonas de Presunción Arqueológica de Eibar

La delimitación de las Zonas de Presunción Arqueológica de Eibar, venían enumeradas y delimitadas en el anexo I de la Resolución de 14 de octubre de 1997, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

En cumplimiento de lo establecido en el artículo 44.2, de la Ley 7/90, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, se incorpora al Plan General la delimitación y tipologías de Área de Protección, establecido para cada uno de los elementos incluidos en la citada Resolución.

No se incorpora el elemento “12. Caserío Orbe (A)”, por haber sido objeto de derribo previo informe de la Diputación Foral de Cultura y Euskera (Expediente 15/97).

La delimitación se representa en los planos E.I.C.- 1 (Escala 1:10.000), y en los planos E.I.C.- 2 (Escala 1:2.000), y E.I.C.- 3 (Escala 1:2.000).

2.1.- Delimitación de las Zonas de Presunción Arqueológica.

Los límites de las Zonas de Presunción Arqueológica se justifican en base a estos criterios:

- a. La distribución de los materiales arqueológicos que hasta el momento presente se conocen.
- b. La situación de las estructuras que se localizan por encima de la Cota Cero.
- c. La posición topográfica que presentan las estructuras.
- d. Las características tipológicas y la relevancia histórica del elemento.

Tratando de sistematizar la Delimitación de las Zonas de Presunción Arqueológica de Eibar, en atención a los criterios ya señalados y a la conjunción de los mismos, se definen las siguientes tipologías de área de protección:

- A Área intramuros del edificio
B Área intramuros del edificio + 15 metros alrededor del mismo, a partir de sus bordes más exteriores.



- C Elementuak hartzen duen area + 5 metro inguruan, kanpoko ertzetik kontatzen hasita.
- D Eraikinak eta eraikinari atxikitako instalazioek hartzen duten area.
- E Planoan zehazten den area.

Azaldutako eskema horren arabera, ondoren ematen den Balizko Arkeologia Guneen zerrenda honetan zehazten da elementu bakoitzarentzat babestu beharreko area zein den. Hona, zein diren:

Fitxa	Izena
1	Areta edo Arrieta baserria (A)
2	Eguren edo Egiguren baserria (A)
3	Eguren dorrea (ageriko egiturarik gabe) (E)
4	Azitaingo Andre Mariaren eliza (B)
5	Untzeta dorrea (A)
6	Apalategi errota (ageriko egiturarik gabe) (E)
7	San Martin Gotzainaren ermita (A)
8	Kutunegieta Erdikoa baserria (A)
9	Kutunegieta Guenetxe baserria (A)
10	Kutunegieta Barrena baserria (A)
11	San Juan baserria (A)
13	Ezkaregi erroa (aurriak) (D)
14	Arrateko Andre Mariaren eliza (B)
15	Arrateko ostatua (Partxua baserria) (A)
16	Santa Maria Magdalenaren ermita (A)
17	Akondiako San Pedroren ermita(B)
18	San Román ermita (A)
19	Suinaga baserria (A)
20	San Miguel Goiangeruaren eliza I / Hilerria (B)
21	San Miguel Goiangeruaren eliza II (A)
22	Pagei baserria (A)
23	Aretxuloeta baserria (A)
25	Amaña errota / Olakua Isasi burdinola / Olakua baserria (ageriko egiturarik gabe) (E)
26	Isasi dorrea (Markeskua jauregia) (A)
27	Isasiko komentua (ageriko egiturarik gabe) (E)
43	Takillangua dorretxea edo Urkidi dorrea (A)
45	Unzeta dorrea (A)



- C Area que ocupa el elemento + 5 metros alrededor del mismo, a partir de sus bordes más exteriores.
- D Area que ocupan el edificio y las instalaciones anexas al mismo.
- E Area que se especifica en el plano.

A tenor del esquema expuesto, la Enumeración de las Zonas de Presunción Arqueológica que se acompaña, concreta el ámbito de protección de cada una de ellas. Son las siguientes:

Ficha	Denominación
1.	Caserío Areta o Arrieta (A)
2.	Caserío Eguren o Egiguren (A)
3.	Torre Eguren (sin estructuras visibles) (E)
4.	Templo de Nuestra Señora de Azitain (B)
5.	Torre de Unzueta (A)
6.	Molino Apalategi (sin estructuras visibles) (E)
7.	Ermita de San Martín Obispo (A)
8.	Caserío Kutunegieta Erdikoa (A)
9.	Caserío Kutunegieta Guenetxe (A)
10.	Caserío Kutunegieta Barrena (A)
11.	Caserío San Juan (A)
13.	Molino Ezkaregi (ruinas) (D)
14.	Templo de Nuestra Señora de Arrate (B)
15.	Hospedería de Arrate (caserío Partxua) (A)
16.	Ermita de Santa María Magdalena (A)
17.	Ermita de San Pedro de Akondia (B)
18.	Ermita de San Román (A)
19.	Caserío Suinaga (A)
20.	Templo de San Miguel Arcángel I / Cementerio (B)
21.	Iglesia de San Miguel Arcángel II (A)
22.	Caserío Pagey (A)
23.	Caserío Aretxuloeta (A)
25.	Molino Amaña / Ferrería Olakua Isasi / Caserío Olakua (sin estructuras visibles) (E)
26.	Torre Isasi (Palacio Markeskua) (A)
27.	Convento de Isasi (sin estructuras visibles) (E)
43.	Casa – torre Takillangua o Urkidi Torre (A)
45.	Torre Unzeta (A)



3.- Hainbat ezaugarriengatik nolabaiteko babes-erregimena behar dutela pentsatzen den ondasun higiezinak.

Hiri-asentamenduek eta bakoitzaren eragin-eremuek eboluzio logikoa izaten dute, gizakiak, asentamendua egiten den une kulturalaren arabera, leku bakoitzean finkatzeko izaten duen asentatze-moduaren eraginez.

Eibarko hiria kasu atipikoa da, bere hiri-morfologiari dagokionez. Ego ibaiak irekitako haran estu batean kokatzen da hiria, mendi-mazizoen tartean sartuta, eta horrek sakan baten antzeko ezaugarriak eransten dizkio ibai-ibilguari. Baldintza horietan, Erdi Aroko hiria haranaren beheerako eremuan kokatzen zen, ibaiaren meandroek eratzen zuten eremuan, aski leku izaki garai hartan zituen biztanleak hartzeko.

Hiria garatzearekin, jarduera eta zerbitzu desberdinak elkarrekin instalatu ahal izateko arazoak sortzen hasi ziren, eta azkenean erabilgarri zegoen lur guztia saturatzera iritsi ziren, beste hirietan eta zirkunstantzia normaletan, larretarako eta mendiko landaketetarako bakarrik erabiliko liratekeen lurak ere betetzera iritsiz.

Bestalde, mugan egoteagatik, errazagoa gertatzen zen hiria arpilatu, erre eta suntsitua izatea, eta gertatu ere, halaxe gertatu zen, historian zehar, hainbat aldiz. Eraikuntzaren ezaugarriengatik eta hiriko biztanleen jarduketengatik ere (armagintzaren inguruko lanetan aritzen baitziren), errazago sortzen ziren suteak hirian.

Horren guztiaren ondorioz, hiria bera XIV. mendean (1346an) sortutako hiria izanik eta hain historia handia izan duen arren, gaur egun ez da geratu "hiri historiko" berezkorik. Jatorrizko hiri zaharretik geratzen den gauza bakarra, praktikan, San Andres eliza —bere inguruan zabaltzen baitzen hiria— eta errebaletatik izandako garapena adierazten duten aztarna gutxi batzuk dira; errebaletatik, funtsean, Erdi Aroko partzelazioaren traza besterik ez da geratzen.

Hiri-garapeneko prozesu garrantzitsuak ezagutu izan ditu hiriak, industriaren eta manufakturaren jardueren garapenarekin lotuta egon diren prozesuak, nagusiki. Egoera hori migrazio-prozesuekin lagunduta etortzen zen, eta prozesu hauek biztanleria azkar haztea ekartzen zuten, hau da, zerbitzu, etxebizitza, etab.en eskariak denbora gutxian gora egitea.

Aldi berean enpresak ere hazi egiten ziren, hiri-inguru konplexu, dinamiko eta konponbide zailekoa konfiguratzera iritsiz.



3.- Bienes Inmuebles que por diversas características se entiende que deben estar sometidos a algún régimen de protección

Los asentamientos urbanos y sus áreas de influencia están sujetos a una lógica evolución provocada por las formas de asentarse el hombre en relación con el momento cultural en que se produce.

La ciudad de Eibar es un caso atípico, en lo referente a su morfología urbana. La ciudad, situada en un valle estrecho labrado por el río Ego, encajado entre macizos montañosos, confieren al cauce características similares a las de un barranco. En estas condiciones, la ciudad medieval se encontraba situada en la zona más llana formada por uno de los meandros del río, con suficiente espacio para albergar la población que en aquel momento tenía.

El desarrollo de la ciudad fue produciendo diversos problemas, para compatibilizar la instalación de las distintas actividades y servicios, hasta que se llegó a un grado de saturación del espacio disponible teniendo que llegar a ocupar suelos que, en circunstancias normales en otras ciudades quedarían relegados a pastos y plantaciones de montaña.

Por otra parte su situación fronteriza, facilitó el que la ciudad fuera saqueada, incendiada y destruida en varias ocasiones a lo largo de su historia. Las características de la edificación y las actividades a las que se dedicaba la población (vinculadas a la producción armera), también colaboraron a que se produjeran diversos incendios.

Todo ello ha motivado el que, tratándose de una ciudad creada en el siglo XIV (1346), y a pesar de su historia, no exista propiamente un “casco histórico”. Lo único que queda prácticamente de la ciudad primitiva es la Iglesia de San Andrés, en torno a la cual se desarrollaba la ciudad, y algunos vestigios de los desarrollos de los arrabales, de los que se conserva básicamente la traza de la parcelación medieval.

La ciudad se ha visto sometida a procesos de desarrollo urbano importantes, vinculados fundamentalmente al desarrollo de las actividades industriales y manufactureras. Esta situación venía acompañada de procesos migratorios que implicaban, un crecimiento rápido de la población, incrementando la demanda de servicios, viviendas, etc.

Simultáneamente se producía el desarrollo de las propias empresas, llegando a configurar un entorno urbano complejo, dinámico y de difícil solución.



Aurreko lerro horietan azaldutakoa kontuan hartuz, geratzen zaigun ondarearen aurrean sentikor azaltzen da katalogo hau eta, gaur egun zein egoeratan aurkitzen den ikusirik, konturatzen da guztiz garrantzitsua eta premiazkoa dela Eibarko hiriak garai batean izandako ondare historiko-artistiko aberats hartatik geratzen zaizkigun elementu urriak kontserbatzea eta babestea.

KATALOGO HAU EGITEKO KONTUAN IZAN DIREN IRIZPIDEAK

Katalogo hau egiten hasteko abiapuntua lehendik Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak eginda zituzten Inbentarioak aztertzea eta analizatzea izan da. Era berean, kontuan izan dira indarrean dauden arau subsidiarioetan jasotako proposamenak ere.

Hemen aurkezten den Behin Behineko Katalogoan gainditu egiten da aurreko guztien marko kronologikoa, 1952ra arteko arkitektura garaikidea ere sartu egin baita, Eibarko hiriaren gaur egungo irudia ulertzen eta konfiguratzeko laguntzen duen ondarea osatzen duela pentsatzen denez.

Aldi berean, Eibarren kokatutako elementu higiezin eta arkeologikoen erreferentzia ematen zuten obren hustuketa bibliografikoa ere egin da.

Kata dokumentalak egin dira Udal Artxibo Historikoan eta Eibarko Udalaren Hirigintzako Artxiboan.

Landa-lanari dagokionez, lurralde guztiaren berrikuspen erabatekoa egin da, bai hiri-lurra eta bai landa-lurra hartuz, eta elementu bakoitza bisitatu da, lehendik ezagutzen genituen datuak eguneratuz eta elementu bakoitzaren argazkiak ere sartuz.

Aurrez egindako lan guzti honen ondorioz, behin-betiko katalogoa egin da, bertan sartuz, aurretik hautapen bat egin ondoren, Eibarko udalerraren elementurik ezaugarrienak, hau da, inola ere galtzen utzi ezin daitezkeenak, ondarearen kalitatea erabat gutxietsita geratzea nahi ez baldin bada. Eraikin eta multzo desberdinak aukeratzeko orduan, kontuan izan diren hautapen-irizpide garrantzitsuenak hauek izan dira: garrantzi historikoa, eraikuntza-ezaugarriak eta ezaugarri estilistikoak, originaltasuna, kontserbazio-egoera eta zein inguruetan aurkitzen diren.



Teniendo presente lo señalado en las líneas anteriores, el presente catálogo es sensible a este patrimonio y, a la vista de la situación en la que se encuentra, se hace más importante y necesaria la conservación y protección de los pocos elementos que quedan del rico patrimonio histórico-artístico con el que contó la ciudad de Eibar.

CRITERIOS PARA LA ELABORACIÓN DEL PRESENTE CATALOGO

El presente catálogo ha partido del estudio y análisis de los Inventarios ya elaborados por la Diputación Foral de Gipuzkoa y por el Gobierno Vasco. También se han tenido en cuenta las propuestas contenidas en las vigentes normas subsidiarias.

El Catálogo Provisional que presentamos supera el marco cronológico de los anteriores, habiéndose incluido la arquitectura contemporánea, hasta 1952, por entender que se trata de un patrimonio que ayuda a entender y configurar la actual imagen de la ciudad de Eibar.

Igualmente se ha realizado el vaciado bibliográfico de aquellas obras que hacían referencia a elementos inmuebles y arqueológicos ubicados en Eibar

Se han ejecutado catas documentales en el Archivo Histórico Municipal y en el Archivo de Urbanismo del Ayuntamiento de Eibar

En cuanto al Trabajo de Campo se ha realizado una completa revisión del territorio tanto urbano como rural, visitando cada uno de los elementos y se han actualizado los conocimientos existentes, que ha incluido la fotografía de los elementos.

Todo este trabajo previo ha dado lugar a un catálogo provisional, en el que se han incluido, tras una previa selección, los elementos más característicos del municipio de Eibar entendiendo que se trata de los que no se puede prescindir, para que la calidad del patrimonio no se vea menoscabada. Los criterios de selección más importantes de los distintos edificios y conjuntos han sido: la importancia histórica, sus características constructivas y estilísticas, la originalidad, el estado de conservación y el ámbito en el que se encuentran.



Katalogoa fitxetan banatu da, fitxa horietan, beste guztien gaintik, informazioaren tratamenduari buruzko argitasuna eta erraztasuna lortzen saiatuz. Fitxaren informazio hori honako epigrafe hauetan antolatu da: zenbakia, kokapena, kontserbazio-egoera, proposatutako babes-neurria, artxiboak eta oinarrizko bibliografia, kokaera-planoa, argazkia eta datu historiko-artistikoak.

Ezarritako hiru babes-mailen arabera egituratu da katalogoa; horietako bakoitzaren barruan, gainera, bi epealdi kronologiko nagusi bereizi dira: 1865 baino lehenagoko arkitektura, eta data horren ondoren eraikitakoa.

BABES-ERREGIMENAK

Hiru babes-kategoria ezartzea proposatu da: babes bereziko erregimena (BBE), oinarrizko babes-erregimena (OBE), eta babes lokaleko erregimena (BLE). Eibarko ondareak duen garrantziari egokitu zaio kategoria horietako bakoitza, eta horietako bakoitzak bere azken helburua lortzeko balio izatea izango litzateke gure xedea: kontserbazioa. Eibarko ondare arkitektonikoaren interes-maila handia izan da, neurri handi batean, hiru kategoria horietako bakoitza zehazteko ezarri den baldintza, eta horren helburua, aurrerago definituko diren erregimen juridikoen bitartez ondare hori gorde eta kontserbatuko dela bermatzea.

Interes historiko-artistiko berezia dutelako, hiri-bilbearen barruan garrantzitsuak direlako eta/edo balore arkitektoniko bereziak dituztelako, kontserbatu eta behar bezala balioesteko bereziki babestu behar diren elementuak sartu dira Babes bereziko erregimenean. Horien artean Kultur Ondasun Kalifikatu bezala aitortutako ondasun higiezin guztiak sartu dira, eta baita, halakotzat aitortu gabe egon arren, aparteko interes kulturala duten guztiak ere. Maila honetan, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren, Ondare Urbanizatu eta Eraikiaren errehabilitazio-jarduketa babestuei buruzkoaren, I. eranskinean definitzen den errehabilitazio zientifikoaren erregimena izango litzateke onartutako jarduketaren erregimen bakarra, edo ordezkoko araudia.

Oinarrizko babesaren erregimenean garrantzi bereziko balore arkitektonikorik ez duten baina eraikitako ondarearen parte interesgarria osatzen duten elementuak sartzen dira, hau da, ikuspuntu tipologikotik begiratuta elementu esanguratsuak direnak eta hiriaren garapenaren garai jakin bateko irudia eratzen dutenak. Arlo honetan, onartutako diren jarduketa bakarrak eraikuntza kontserbatu eta, obrak eginez, eraikuntzaren funtzionalitatea segurtatuko dutenak izango dira, eta elementu tipologiko, formal eta estrukturalak errespetatuz egin beharko dira. Baimendutako jarduketaren erregimena uztailearen abenduaren 30eko 317/2002, Ondare Urbanizatu eta Eraikiaren errehabilitazio-jarduketa babestuei buruzkoaren, I. eranskinean definitzen den errehabilitazio kontserbatzaileko erregimena izango litzateke, edo ordezkoko araudia.



El Catálogo se haya dividido en fichas en las que se ha pretendido al máximo la claridad y facilidad en el tratamiento de la información. Ésta se ha dividido en los siguientes epígrafes: Número, localización, estado de conservación, protección propuesta, archivos y bibliografía básica, plano de situación, fotografía y datos histórico-artísticos.

El catálogo se estructura según las tres categorías de protección establecidas; en cada una de ellas se señalan, además dos grandes períodos cronológicos: arquitectura anterior a 1865 y la construida con posterioridad a esa fecha.

REGÍMENES DE PROTECCIÓN

Se propone establecer tres categorías de protección: el régimen de protección especial (R.P.E.), el régimen de protección básica, (R.P.B) y el régimen de protección local (R.P.L.). Cada una de las categorías se adapta a la importancia del patrimonio eibarrés y se pretende que cada una de ellas sirva para el fin último: su conservación. El elevado interés del patrimonio arquitectónico eibarrés ha condicionado en buena medida la determinación de estas tres categorías para con ello garantizar la salvaguarda y conservación de ese patrimonio a través de los regímenes jurídicos que se definirán más adelante.

En el régimen de protección Especial, se incluyen todos aquellos elementos que por su especial interés histórico-artístico, por su importancia dentro del tejido urbano y/o por sus específicos valores arquitectónicos, deben ser especialmente protegidos para su conservación y puesta en valor de sus cualidades. Entre ellos se encuentran todos los bienes inmuebles declarados como Bien Cultural Calificado, y aquellos que no gozando de dicha declaración tienen un excepcional interés cultural. El régimen de las actuaciones permitidas sería el de restauración científica definida en el anexo I, del Decreto 317/2002 de 30 de diciembre, sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del Patrimonio Urbanizado y Edificado, o normativa que lo sustituya.

En el régimen de protección Básica, se incluyen todos aquellos elementos que no poseen valores arquitectónicos de singular relevancia, pero que constituyen una parte interesante del patrimonio edificado, en tanto en cuanto son elementos significativos desde el punto de vista tipológico y configuran la imagen de una determinada época del desarrollo de la ciudad. Las actuaciones permitidas deberán dirigirse a conservar la construcción y asegurar su funcionalidad mediante la ejecución de obras, que en cualquier caso, respetarán los elementos tipológicos, formales y estructurales. El régimen de las actuaciones permitidas sería el de restauración conservadora definida en el anexo I, del Decreto 317/2002 de 30 de diciembre, sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del Patrimonio Urbanizado y Edificado, o normativa que lo sustituya.



Esku-hartzeen kategoriak kasu bakoitzaren babes-erregimena garatzerakoan definituko dira espreski.

Babes lokaleko erregimenaren barruan, ingurune, plaza edo espazio publiko jakin baten inguruan kokatzen diren eta leku horien hiri-irudia konfiguratzeko laguntzen duten ondasun higiezin multzoak sartzen dira. Kategoria honetan, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren, Ondare Urbanizatu eta Eraikiaren errehabilitazio-jarduketa babestuei buruzkoa edo ordezkoko araudiaren, I. eranskinean A eta B kategorietako errehabilitazio kontserbatzaileen antzeko babes-erregimena ezartzea proposatzen da, baina babes hori fatxada, teilatu-hegal, estalki eta, azken finean, kanpoko azalera bakarrik mugatuz.

KATALOGOAREN LABURPENA

ARKITEKTURA ERLIJIOSOA

Gorenko mailan San Andres parroki eliza sartu da, eta Arrateko basilika, Aginagako San Migel parrokia eta Azitaingo Andre Mariaren Jasokundearen ermita. Lehenengoa hiri historikoaren erdi-erdian aurkitzen da; gainerakoak maila handi batean integratuta daude, dela landa-lurrean, Arrate edo Aginakakoak kasu, edo haranaren barrenean, hirigunetik oso gertu, Azitaingo elizatearen kasuan adibidez.

Gorenko kategoria horretan sartu dira, berebat, Aginagako hilerria, udal-hilerriaren elementu singularrak eta Azitaingo Andre Mariaren Jasokundearen eta Arrateko basilikaren tarteko bidean kokatutako umildegia, "Ama Birjinaren urratsak" izenez ere ezagutzen direnak, eta baita Arrate eta Urkiko gurutzeak ere.

Oinarrizko babesaren kategorian, landa-zonetan kokatuta dauden gainerako ermitak sartu dira: San Salvatore, San Roman, Akondiako San Pedro, Santa Kruz ermitak. Hemen sartu dira Santa Magdalena eta San Martinen ermitak ere, oso kontserbazio-egoera txarrean aurkitzen diren arren hemen sartzea garrantzitsua dela iruditu zaigulako, garrantzi etnografiko handia dutelako, garrantzi arkitektoniko-estilistikoa baino gehiago.



Las categorías de las intervenciones se definirán de manera expresa en el desarrollo del régimen de protección de cada uno de los casos.

En el régimen de protección Local, se incluyen aquellos conjuntos de Bienes Inmuebles, que se sitúan en el entorno de un determinado ámbito, plaza, o espacio público, y que contribuyen a la configuración de la imagen urbana de esos lugares. En esta categoría, se propone establecer un régimen de protección, como el definido en el anexo I, del Decreto 317/2002 de 30 de diciembre, sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del Patrimonio Urbanizado y Edificado o normativa que lo sustituya, para los casos de restauración conservadora en categorías A y B, pero limitando la protección a las fachadas, aleros, cubiertas y, en definitiva a la envolvente.

RESUMEN DEL CATÁLOGO

ARQUITECTURA RELIGIOSA

En la máxima categoría se ha incluido la Iglesia Parroquial de San Andrés, también la Basílica de Arrate, la parroquia de San Miguel en Aginaga y la ermita de Ntra. Sra. De la Asunción en Azitain. La primera se haya en pleno casco histórico, las demás cuentan con un gran grado de integración ya sea rural como en el caso de Arrate o Aginaga o en el fondo del valle cercana al casco, en la anteiglesia de Azitain.

Se incluyen también en la máxima categoría el cementerio de Aginaga, los elementos singulares del cementerio municipal, y los humilladeros situados en el camino entre la ermita de Ntra. Sra. De la Asunción en Azitain y la Basílica de Arrate, también conocidos como “Los Pasos de la Virgen”, y las cruces de Arrate y Urki.

En la protección básica se han incluido las demás ermitas ubicadas en las zonas rurales: ermita San Salvador, San Román, San Pedro de Akondia, Santa Cruz. Se incluyen también las ermitas Santa Magdalena y San Martín que, aunque se encuentran en muy mal estado de conservación, se ha considerado oportuno incluirlas debido a su importancia etnográfica más que arquitectónico-estilística.



1865 AURREKO HIRI-ARKITEKTURA

Eibarko artisauen jarduerak hedapen industrialerako sektore egokia aurkitu zuen armagintzan, eta Soralezekin konpartitu zuen kanoi, fusil eta arma zurien fabrikazioan lehen mailako protagonismoa.

Zirkunstantzia horrek eragin handia izan zuen hiriaren eboluzioan, eta eraikin noble ugari sortu ziren, familia ospetsuen jaiotetxe. Horregatik sartu dira babes bereziko erregimenaren kategorian Isasi dorretxea (Markeskua), eskuratu berria dena, eta Aldatze eta Untzeta jauregiak. Bi azken horiek izugarri eraldatu dira, bakoitzari ikastetxe bana atxiki baitzaio. Kategoria honetan aipagarriak dira, berebat, Txirio-kaleko 6. zenbakian dagoen etxea, Urkidi dorretxea eta Ibarkurutze plazako iturria, oso estilo zaindua duena eta Banco Gipuzcoanoren aurrean geratzen dena, eta Urkizu pasealekuko iturria, delako pasealeku horren fronte laburretako bat errematatzen dagoena eta hiri-bilbean integratze-mailaren aldetik balio handia duena.

Azkenik, babes lokaleko erregimenaren barruan, Txirio-kalea sartu da. Bata bestearen jarraian izandako gatazkek, eta zehazki Gerra Zibilak, hondamendi handia egin zuten hirian, eta Erdi Aroan sortutako asentamenduaren parte handia galdu zen; horregatik sartu da kale hau hemen, oso ondo antzematen baita Erdi Aroko partzelatxantelketa, inguruneari balio handia ezarriz horrekin. Ondoen kontserbatzen den etxea, 6 zk.koa da, eta babes bereziko erregimenaren kategorian sartu da.

LANDA-ARKITEKTURA

Landa-arkitekturan Sagartietan Jauregia azpimarratu behar da, eta baita goreneko babes-mailan sartu nahi diren baserriak ere: Untzeta, Zelaia eta Zozola, eta Kutunegieta baserrien multzoa. Azken multzo honek babes bereziko erregimena izan beharko du, multzoko baserri guztien kategoria arkitektonikoa ez baita berdina (Goenengoa baserriak du mailarik handiena), eta batzuk ez baitauzkate elementu interesgarri isolatu batzuk besterik. Hala ere, guztien artean multzo urbanizatu berezia osatzen dute landa-espazioaren eremuan.



ARQUITECTURA URBANA ANTERIOR A 1865

La actividad artesanal de Eibar encontró en la fabricación de armas un sector propicio para la expansión industrial, compartiendo con Placencia el protagonismo de la producción de cañones, fusiles y armas blancas.

Estas circunstancias tuvieron gran influencia en la evolución urbana, con abundancia de edificios nobles, cuna de familias ilustres. Por esa razón se han incluido en la categoría de protección especial la Casa-Torre Isasi (Markeskua), recién recuperada, y los Palacios Aldatze y Untzeta. Estos últimos se han visto profundamente transformados debido a que les han sido adosados sendos colegios. Destaca también en esta categoría la casa situada en el número 6 de Txirio-Kale, la Casa-Torre Urkidi y la fuente de la plaza Ibarkurutze, con un cuidado estilo enfrente del Banco Guipuzcoano, y la Fuente del Paseo de Urkizu, que remata uno de los frentes cortos del citado paseo, con un fuerte valor de integración en la trama urbana.

Por último en la protección local se ha incluido la calle Txirio-Kale. Los sucesivos conflictos y concretamente la Guerra Civil hicieron estragos en la villa, destruyéndose gran parte del asentamiento de origen medieval, por esa razón se ha incluido esta calle, donde se observa la lotización medieval con un gran valor ambiental. La casa mejor conservada es el número 6 que se ha incluido en el nivel especial.

ARQUITECTURA RURAL

En la arquitectura rural destaca la existencia del Palacio Sagartieta, así como los caseríos para los que se propone la máxima protección: Untzeta, Zelaia, y Zozola y el grupo de los caseríos Kutunegieta. Este último conjunto deberá contar con un régimen de protección especial ya que la categoría arquitectónica de todos ellos no es la misma (el de mayor nivel es el Goenengoa), los demás cuentan con elementos aislados de interés. Sin embargo todos ellos forman un especial conjunto urbanizado en el espacio rural.



Oinarrizko babesaren kategorian sartzen diren baserrien artean aipatzekoak dira Areta eta Iraegi Handikoa, beren fatxadetako bakarren bateko goiko aldean zurezko itxidurak dituztenak, eta baita Barrenetxea baserria eta beste batzuk ere; hauetan hainbat elementu interesgarri azpimarratu ditugu, hala nola, Gisasola edo Suinaga baserrien sarrera txukunak. Gainerakoetan elementu interesgarri isolatuak aipatu behar dira, adibidez Iraragorri baserriaren sarrerako pilarea, edota San Juan baserriaren sarrerako atea eta armarria. Zerrenda osatzeko, hona beste hainbat baserri: Ezkaregi, Ibar-gain, Pagei, Aritxulueta eta Mandiola Azpikoa.

Babes lokaleko kategoriakoen artean Arando baserrien multzoa sartu da, Kutunegieta multzoko baserriak sartzeko izan zirenen antzeko arrazoiengatik. Arando baserriek multzo urbanizatu txukuna osatzen dute landa-espazioaren barruan. Baserrien multzoan sarrerari ematen zaion tratamendua azpimarratu behar da, azkenean arku bat besterik ez den bide batetik sartzen baita.

1865 ONDOKO HIRI-ARKITEKTURA

Eibarko arkitektura garaikideak interes aparta du egindako obren kalitatearengatik. Esan behar da maila handiko arkitektoek lan egin zutela: Raimundo Cortazar, Urbano Manchobas, Ramon Alberdik, eta Fernando Zumarraga bezalako obra-maisuek. Aipatutako hiru arkitekto horiek udal-arkitekto izan ziren eta, nola ez, funtsezko egitekoa izan zuten Eibar garaikide berriaren konfigurazioan. 1865 eta 1936 bitarteko urteetako oso adibide ederrak geratzen zaizkigu honako estilo hauetan: eklektizismoa, modernismoa, erregionalismoa, art-dec6 eta arrazionalismoa. 1936 eta 1947 bitarteko epealdian bi estilo nabarmentzen dira: arkitektura nazionala eta gerra ondoko nazionalismoa.

1865 eta 1947 bitartean egindako arkitekturaren sailean 4 elementu sartu nahi dira babes bereziko erregimenean, 1865-1936 bitarteko arkitekturari 2 elementu, eta beste 2, 1937-1947ko epealdian.

Lehenengo epealdian honako adibide hauek ditugu, estiloen arabera ordenatuta: Udaletxea (1888-1901), eta Astelena frontoia (1904), eklektizismotik modernismorako trantsizioa laburtzen duena.

Bigarren epealdi kronologikoan Etxe sindikala eta Coliseo zinema (1948) aipatu behar dira.



Entre los caseríos incluidos en la protección básica destacan los de Areta y Iraegi Handikoa que presentan cerramiento de madera, en la parte superior de alguna de sus fachadas, al igual que el caserío Barrenetxea u otros en los que destacamos elementos interesantes como son los accesos cuidados de los caseríos Gisasola o Suinaga. Los demás destacan por elementos aislados de interés como el pilar del acceso del caserío Iraragorri o la puerta de entrada y escudo del caserío San Juan. La relación se completa con los Caseríos siguientes: Ezkaregi, Ibar-gain, Pagei, Aritxulueta y Mandiola Azpikoa.

Entre los de nivel local se han incluido el grupo de los caseríos Arando por razones similares al caso de los Kutunegieta. Los caseríos Arando forman un cuidado conjunto urbanizado en un espacio rural. En estos destaca el tratamiento que se le da al acceso, al que se llega por un camino que es en suma un arco.

ARQUITECTURA URBANA POSTERIOR A 1865

La arquitectura contemporánea de Eibar reúne un extraordinario interés por la gran calidad de sus realizaciones. Asimismo trabajaron arquitectos de gran nivel como Raimundo Cortázar, Urbano Manchobas, Ramón Alberdi, y maestros de obras como Fernando de Zumárraga. Los tres arquitectos citados fueron a su vez arquitectos municipales por lo que jugaron un papel decisivo en la configuración del nuevo Eibar contemporáneo. Se conservan buenos ejemplos para el período comprendido entre los años 1865 y 1936 en los siguientes estilos: eclecticismo, modernismo, regionalismo, art decó y racionalismo. En el período que media entre 1936 y 1947 destacan dos estilos: arquitectura nacional y nacionalismo de postguerra.

De la arquitectura desarrollada entre 1865 y 1947 se propone incluir en el régimen de protección especial 4 elementos, 2 correspondientes al período 1865-1936 y 2 del período de 1937 a 1947.

En el primer período contamos con los siguientes ejemplos ordenados por estilos; el Ayuntamiento (1888-1901); el frontón Astelena (1904) que resume la transición del eclecticismo al modernismo;

En el segundo período cronológico destacamos la casa Sindical y el cine Coliseo (1948).



Oinarrizko babeseko erregimenean hainbat elementu sartu dira; guzti horiei dagokienez, ondoren egingo den analisi batean bereiziko dira bakoitzaren kasuan baimentzen diren jarduketak. Beren interes tipologiko, formal eta estilistikoagatik nabarmentzen diren elementuak hautatu dira; garai honetako autorerik oparoenetako bat izan zen Urbano Manchobasek egindako obraren izaera unitarioa da bereziki interesgarria.

Babes lokaleko erregimenaren barruan berez aparteko balio nabarmenik ez duten arren, hiri-bilbearen osagarri bezala interesgarri gertatzen diren elementuak sartzen dira. Klase sozial apalenzako bizitza-etxeak dira gehienbat, eklektizismoaren estiloan gauzatutakoak.

ARKITEKTURA INDUSTRIALA

Udalerriaren ezaugarri ekonomikoen eta bere izaera industrial markatuaren ondorioz, arkitektura-mota honek esanahi berezia hartzen du, eta Eibarko udalerriaren espezifikotasuna markatzen du gainera. Katalogo honek kontuan izan du espezifikotasun hori eta etorkizunerako gorde egin nahi izan ditu hor aurkitzen diren arkitektura industrialeko adibide interesgarri hauek.

Oinarrizko babesaren erregimenean, "El Casco" etxea nabarmendu behar da, Raimundo Alberdik 1938an eraikitako etxebizitza-eraikina, hiri-bilbearekin erabat egokitua dagoena; sarrera nagusiari emandako tratamendua eta fatxaden estilo funtzional eta arrazionalista ditu aipagarri.

Gainera, oinarrizko babesaren erregimenean sartu dira Fundiciones Aurrera eta Lambretta enpresen bulegoetako gorputzak ere, zona horietan bi kasuok azaltzen baitute eraikinaren gainerako parteak baino zainduagoa dagoen tratamendu kurboa, bertan kokatuz izkinako sarrera eta ordezkartzako bulegoak.

Matsaria kalean 30ko hamarkadaren bukaeran eraikitako eraikin industrial bat azpimarratu dugu bere kalitate arkitektonikoagatik. Arrazionalista da eta Raimundo Alberdi arkitektoak egindakoa: Pablo Soroa / HEINZA eraikina, etxebizitza eta fabrikazio-tailerrak elkarrekin biltzen dituen. Goiko solairuetan etxebizitzak egin dira eraikin horretan, eta beheko solairuan tailerrak, Eibarren hainbeste aldiz ikusten den eredua osatuz.



Dentro del régimen de Protección Básica, se incluyen una serie de elementos entre los que habrá que establecer la diferenciación de las actuaciones permitidas en cada uno de ellos, en un posterior análisis. Se han seleccionado aquellos elementos más destacados por su interés tipológico, formal y estilístico teniendo especial interés el carácter unitario de la obra realizada por alguno de los autores más prolífico de esta época como es Urbano de Manchobas.

Dentro del régimen de Protección Local, se incluyen aquellos elementos que, aunque en sí mismos no tienen un valor destacado, sí lo poseen como integrantes de la trama urbana. En general se trata de casas de vecindad para las clases modestas que se resuelven desde el eclecticismo.

ARQUITECTURA INDUSTRIAL

Debido a las características económicas del municipio y de su marcado carácter industrial este tipo de arquitectura cobra un especial significado, marcando además la especificidad del citado municipio. Este catálogo ha sido sensible a ese hecho, en la idea de preservar para el futuro estos interesantes ejemplos de arquitectura industrial con los que cuenta.

Dentro del régimen de Protección Básico destaca la casa de “El Casco” edificio de pisos construido en 1938 por Raimundo Alberdi, plenamente adaptado a la trama urbana, resaltando el tratamiento dado al acceso principal y el estilo funcional y racionalista de las fachadas.

Además se han incluido en régimen de Protección Básico el cuerpo de oficinas de las empresas Fundiciones Aurrerá y Lambretta, donde los dos presentan un tratamiento curvo de factura más cuidada que en el resto del edificio en el que se ubicaban la entrada en esquina y las oficinas representativas.

En la calle Matsaria hemos destacado por su calidad arquitectónica un edificio industrial construido a finales de los años 30, racionalista y obra del arquitecto Raimundo Alberdi: Pablo Soroa /HEINZA donde convive la vivienda con los talleres de fabricación. Se trata de un edificio donde se ubican viviendas en los pisos superiores destinando las plantas inferiores, a albergar los talleres, algo muy frecuente en Eibar.



INTERES KULTURALEKO ELEMENTUAK

ELEMENTOS DE INTERES CULTURAL

E L E M E N T U E N
Z E R R E N D A

-

L I S T A D O
D E
E L E M E N T O S



BABES ERREGIMENAREN MENDE DAUDEN ERAIKINEN ETA MULTZOEN ZERRENDA
LISTADO DE EDIFICIOS Y CONJUNTOS SOMETIDOS AL RÉGIMEN DE PROTECCIÓN

BABES BEREZIKO ERREGIMENA: A MAILA

REGIMEN DE PROTECCION ESPECIAL: NIVEL A

KALEA / CALLE	KOKAPENA / LOCALIZACIÓN	IZENA	DENOMINACIÓN	ZENBAKIA NÚMERO
ALDATZE KALEA	5,1401	ALDATZE DORRETXE	CASA-TORRE ALDATZE	A-1
BARRIA PLAZA	S/N1,1309	SAN ANDRES ELIZA	IGLESIA DE SAN ANDRES	A-2
GOROSTA-BALLE	34,1403	UNTZUETA DORRETXE	CASA-TORRE UNTZUETA	A-3
MANDIOLA	36,1404	ZOZOLA BASERRIA	CASERIO ZOZOLA	A-4
BALLE				
OTAOLA	1,1104	ISASI DORRETXE (MARKESKUA)	CASA-TORRE ISASI (MARKESKUA)	A-5
HIRIBIDEA				
UNTZAGA PLAZA	1,1107	UDALETXE	UDALETXE	A-6
ARRATE BALLE	20,5502	SAGARTIETA BASERRI-JAUREGIA	PALACIO-CASERIO SAGARTIETA	A-7
ARRATE BALLE	21-22-23,5502	KUTUNEGIETA BASERRI-MULTZOA	CONJUNTO CASERIOS KUTUNEGIETA	A-8



INTERES KULTURALEKO ELEMENTUAK

ELEMENTOS DE INTERES CULTURAL

BABES BEREZIKO ERREGIMENA: B MAILA**REGIMEN DE PROTECCION ESPECIAL: NIVEL B**

KALEA / CALLE	KOKAPENA / LOCALIZACIÓN	IZENA	DENOMINACIÓN	ZENBAKIA NÚMERO
AGINAGA-AUZO	S/N,5501	AGINAGAKO HILERRIA	CEMENTERIO AGINAGA	B-1
AGINAGA-AUZO	1,5501	SAN MIGEL ELIZA	IGLESIA DE SAN MIGUEL	B-2
ARRATE BALLE	1,5502	ARRATEKO AMAREN SANTUTEGIA	SANTUARIO DE NUESTRA SENORA DE ARRATE	B-3
ARRATE BALLE	16,5502	ZELAIA BASERRIA	CASERIO ZELAIA	B-4
ARRATE BALLE	18,5502	UNTZETA BASERRIA	CASERIO UNTZETA	B-5
		*****	CAMBIA DE NIVEL DE PROTECCION	B-6
AZITAIN BIDE	8,5402	AZITAINGO ANDRE MARIAREN JASOKUNDEAREN ERMITA	ERMITA DE NUESTRA SEÑORA DE LA ASUNCION DE AZITAIN	B-7
ESTAZIÑO KALEA	19,4406	TREN GELTOKIA	ESTACION DEL FERROCARRIL	B-8
ISASI KALEA	2,1103	HERRIKO ETXEA	CASA DEL PUEBLO	B-9



INTERES KULTURALEKO ELEMENTUAK

ELEMENTOS DE INTERES CULTURAL

KALEA / CALLE	KOKAPENA / LOCALIZACIÓN	IZENA	DENOMINACIÓN	ZENBAKIA / NÚMERO
ISASI KALEA	11,1103	ASTELENA	ASTELENA	B-10
MERKATU KALEA	2,1080	COLISEO ZINEMA	CINE COLISEO	B-11
TXIRIO KALE	6,1307	TXIRIO-KALEKO ETXEBIZITZA-ERAIKINA	EDIFICIO DE VIVIENDAS TXIRIO-KALE	B-12
URKI KURUTZEKUA	2,6001	URKIDI DORRETXEA	CASA-TORRE URKIDI	B-13

